

OÑATIKO UDALA
KALE GARBIKETAKO PEOI ETA PEOI GIDARI PLAZAK JABETZAN
BETETZEKO AZTERKETA TEORIKOAREN INGURUKO
JAKINARAZPENA

Deialdi honetan parte hartzeko eskaera egin dutenei hau jakinarazten zaie:

ARIKETA EGIN AURRETIK

1. Oposizioaldiko azterketa teorikoa 2024ko uztailaren 3an izango da goizeko 9:00etan, Oñatiko Kultur Etxeko erakusketa gelan (Santa Marina Plaza, 20560 Oñati).
2. Ateak 8:30etan irekiko dira eta 8:55etan itxi.
3. Izangaiak NANA, pasaportea edo gidabaimena, eta boligrafo beltz edo urdina (errotuladorea ez dena) eraman behar dute ariketara.
4. Izangaiak Kultur Etxeko sarrerara joan behar dute, NAN, pasaportea edo gidabaimena eskuan dutela eta telefono mugikorra itzalita (ez isilik, ez hegaldi moduan).

ARIKETA EGIN BITARTEAN

1. Dagokion gelara sartu ondoren, izangaiak ezin izango dira komunera joan.
2. Telefono mugikorrak eta bestelako gailu elektronikoak itzalita eduki behar dira (ez isilik, ez hegaldi moduan), Kultur Etxean sartzen denetik ariketa amaitu eta irten arte.
3. Ezin da eraman erloju adimendurik.
4. Hautaketa prozesutik kanpo geldituko dira ariketak irauten duen bitartean erabiltzeko moduan dagoen sakelako telefonoren bat edo beste edozein gailu elektroniko daramatzaten izangaiak, Interneterako edo beste gailu batzuetarako konexioa duten gailu elektronikoan.

5. Ezin izango da belarritako tapoirik erabili, eta belarriak agerian eduki behar dira.
6. Gelan erabateko isiltasuna egongo da. Gainerako izangaiekiko jokabide desegoki edo gogaikarria izateak pabiloitik kanporatzea eta hautapen prozesutik baztertzea ekarriko du.
7. Izangaiek mahai azpian utzi beharko dituzte gauza pertsonalak.
8. Ariketak irauten duen bitartean, izangaiek mahai gainean honako hauek soilik eduki behar dituzte: jarraibide orria azterketarekin, erantzun orria, boligrafo urdin edo beltza eta NANA, zeinak une oro ikusteko moduko leku batean egon behar baitu.
9. Zalantzarik izanez gero, izangaiek eskua altxatu eta zaindari baten laguntza eskatu behar dute.
10. Zaindariaren eta epaimahai kalifikatzailearen jarraibideak bete behar dituzte uneoro izangaiek. Hala egin ezean, pabiloitik kanporatu eta hautaketa prozesutik geratu ahal izango dira.
11. Ezingo da azterketa-orria gelatik atera azterketa amaitu arte.
12. Bertaratze ziurtagiria behar duten izangaiek, azterketa amaitzean eskatu beharko dute.

Oñatin, 2024ko ekainaren 24an

Epaimahaiko idazkariak